




KPIa %6,5era apaldu zen azaroan

EAEko kontsumoko prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Azaroan, Euskadiko KPI %6,5ean kokatu zen, hau da, urriko datua baino lau hamarren beherago.

Elektrizitatearen eta erregaien merkatzea da indize orokorraren jaitsiera horren arrazoi nagusia. Hala ere, elikagaien prezioen igoera bizkortu zen berriro, eta %15,0ko gehikuntza izan zuten aurreko urtearekin alderatuta.

EAEko aireportuak jarduera berreskuratzen ari dira

Hegazkinaz bidaiatu duten pertsonak
Urtarriletik azarora bitartean. Mila



Iturria: AENA.


Aurtengo lehen hamaika hilabeteetan, EAEko aireportuetatik pasa diren pertsonen kopuruak bikoiztu egin zituen iazko zifrak. Guztira, 5,3 milioi pertsonak baino gehiagok erabili zituzten aireportu horiek. Hobera egin duen arren, oraindik ez da lortu 2018an eta 2019an lortu ziren desplazamenduen maila berreskuratzea.



EAEko esportazioek beste marka bat ezarri dute

Atzerrira esportatutako ondasunak

Urtarriletik urrira bitartean metatuta. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Aurtengo urtarriletik urrira bitartean, atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %29,0 hazi dira. Guztira, saldutako kopurua 27.000 milioi eurotik gorakoa izan da, aurreko urteetan erregistratutakoa baino askoz ere handiagoa. Produktu energetikoek eta gainerako produktuek gora egin dutelako hobetu da emaitza.

Etxebizitzaren salmenta %24,6 hazi zen EAEn

Euskadin saldutako etxebizitzak

Urtarriletik urrira bitartean metatua



Iturria: INE.

Etxebizitzaren salmentak %24,6 egin zuen gora urrian EAEn, aurreko urtearen aldean. Aurtengo lehen hamar hilabeteetan, saldutako etxebizitzaren kopurua 20.500 unitatera hurbildu zen, aurreko urteko aldi berean baino %12,0 gehiago eta azken hamabost urteetako kopururik handiena.